

ARGIDUNA

Zulobia´ko jauna ilda, urrengo egunean, Lapurdi´ko Sara´n argi´ bat ikusten zan etxe aren gaiñean eta Mendiondo´ko iturrian. Ildakoaren arimea ete zan edo, artega egozan Zulobia´n.

Egun bat joan, bestea etorri, ta bardin argi ori teillatuaren gaiñean. Gau baten bertako etxekoandreak, adorea artu ta itandu eutsan:

—Parte txarrekoa ba az (zara), aide egik (egizu), eta parte onekoa ba az (zara), esan.

—Parte onekoa non (naz).

—Nor az (zara), ba?

—Ire (zure) senar izandako Pello.

—Eta zer nai dok (dozu)?

—Mundu onetan bizi nintzala, meza batzuk atera barik itzi

niñoazan (nebazan). Atera egizan (egizuz) eta salbauko non (naz). — Aterako joazat (dodaz); zenbat meza zoazan (ziran) ba?

—Bost!

—Tirok (tira), ba...

Atera ei eutsazan bost meza orreik, Zulobia´ko etxekoandreak, eta ez ei zan geiago argi ori agertu.

Irakurlea: Karmele Uriarte - Andereñoa Balmaseda´ko Zubi-Zahar Ikastolan